



Ahotsa

www.ongdeuskadi.org

64. zenbakia • 2011

EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA • COORDINADORA de ONGD EUSKADI

Euskadi sale a la calle para proponer alternativas y nuevos hábitos de consumo con el fin de lograr una sociedad más justa y solidaria



El 17 de octubre se conmemora el Día Internacional contra la Pobreza y con ese motivo numerosas personas de Euskadi se han unido a las movilizaciones que se llevan a cabo a lo largo y ancho del planeta. Otro año más, la ciudadanía ha exigido a la clase política medidas concretas y efectivas para hacer frente a las situaciones de pobreza y desigualdad entre las diferentes personas. En este nuevo número de la revista Ahotsa conoceremos las reivindicaciones así como las alternativas y los nuevos hábitos de consumo que se proponen para lograr ese objetivo.

En la sección *Fuera de foco*, y de la mano de Juan Erviti López, voluntario de medicusmundi Gipuzkoa, nos adentraremos en el mundo de la investigación de los medicamentos y los intereses comerciales para tratar de responder a la siguiente pregunta: ¿Qué hay detrás de los medicamentos?

Además, en estas páginas estrenamos nuevas secciones. Conversamos sobre ecofeminismo con Yayo Herrero, Coordinadora de Ecologistas en Acción. Ella nos da algunas pautas para que en nuestra sociedad adquieran un mayor valor aquellos trabajos relacionados con el cuidado de las personas, la crianza, la reproducción humana, la promoción de la salud... En la sección *¡Ojo al dato!*, que también inauguramos, la ONG de desarrollo (ONGD) Paz con Dignidad y el Observatorio de las Multinacionales de América Latina reflexionan sobre el siguiente dato: "Algunas empresas transnacionales cuentan con beneficios superiores al Producto Interior Bruto de muchos países del Sur".

En otro orden de asuntos, en el interior conoceremos también el trabajo que la ONGD Mugarik Gabe lleva a cabo en el ámbito de la cooperación

internacional. Descubriremos también el valor de la cooperación al desarrollo desde el ámbito local, la que se lleva a cabo desde los ayuntamientos, diputaciones y los gobiernos autonómicos. Por otro lado, en 2011 se celebra el Año Europeo del Voluntariado, y con este motivo Natxo Arnaiz, de la agencia para el voluntariado y la participación social de Bizkaia -Bolunta-, reflexiona sobre los retos de las organizaciones ante las nuevas perspectivas del voluntariado. Finalmente, conoceremos Guinea Bissau de la mano del trabajo de cooperación internacional que Helea Saiz, Responsable de proyectos de cooperación de Medicusmundi Bizkaia en ese país, está desempeñando. •



Deskribapena:

Lankidetzako erakunde bat gara eta gure helburua da giza garapen integrala lortzea, hau da, gizon eta emakumeen eta herrialde guztien garapen ekitatiboa bultzatzea, baina, hori bai, ingurumena zainduz hurrengo belaunaldiek ere ingurumenaz goza dezaten. Pertsonak, gizartea, politika, ekonomia eta Estatuaren egiturak aldatu nahi ditugu. Injustiziak salatu nahi ditugu, baina alternatibak bilatu ere bai. Berrirori definitu behar dira bizitza eta harremanak, ekonomia solidarioa eta emakumeek gizartean duten papera, gainera, astia behar dugu bizitze onarako eta gutxiagorekin hobeto bizitzeko, desazkundearen aldeko apustua egin behar dugu eta bizitza erdigunean izango duen ekonomia bultzatu behar dugu. MUGARIK GABE erakundea berdintasunean oinarritutako erakunde horizontala eta asanblearioa da, horrelaxe eraiki nahi dugulako helburutzat dugun gizarte justua.

Lehentasunezko esku-hartze eremuak:

Jabekuntza, komunikazioa, hezkuntza eta elikadura-subiranotasuna emakumeen, herri indigenen eta nekazarien erakundeekin.

• Elikadura subiranotasuna eta kontsumo kontziente eta arduratsua:

Proposamenak eta alternatibak aztertzen ditugu nekazaritzako elikagaien gaur egungo sistema eta gure bizimodua eta kontsumo ohiturak aldatzeko. Elikadura subiranotasuna proposatzen dugu alternatiba bideragarria eta sozialki eta ekologikoki iraunkorra delako, eta baita ere proposatzen dugu produkzioa berregokitzea eta kontsumoa murriztea.

• Hezkuntza/lankidetzak:

Euskal Autonomi Erkidegoan hezkuntzan, eta baita lankidetzan ere gizarte zibila aldatzen saiatzen gara aktiboki parte hartzen duten herritar politikoak sortzeko. Jabekuntza, emantzipazio eta autonomia pertsonala abiapuntutzat hartuta, gure gizarte erdua eraldatu nahi dugu hobeto bizi gaitezen, gutxiagorekin bada ere. Horretarako, sareko eta han-hemengo koordinazio lana bultzatzen dugu, parte-hartzearen eta ikaskuntzaren aldeko apustu bat bezala, lehentasuna emanaz mugimendu feministari, indigenari, nekazaritzakoari eta ekologistari.



• Genero berdintasuna:

Eredu patriarkalak, kapitalismoak eta krisiak emakumeen bizitzan dituzten ondorioak aztertzen ditugu eta proposamen feministak hedatzen ditugu emakumeen jabekuntza sustatuz Nikaraguan, El Salvadorren, Guatemalan eta Kolonbian. Horrez gain, gizonen eta emakumeen arteko harreman ekitatiboagoak sustatzen ditugu Latinoamerikan, Euskal Herrian eta gure erakunde bertan garatzen ditugun prozesuen bitartez.

• Herri indigenak:

Herri indigenen eskubide indibidual eta kolektiboak defendatzen ditugu eta alternatibak sustatzen ditugu bizitze onaren paradigmatik abiatuta, nazio anitzeko estatuak bultzatuz eta nazioarteko zuzenbide instrumentuak erabiliz. Guatemalan herri indigenekin eta emakume antolatuekin lan egiten dugu, Bolivian komunikatzaile indigenak prestatzen ditugu eta Kolonbian hezkuntza eta autonomia indigena bultzatzen ditugu.

Zein herrialdetan lan egiten dugun:

Guatemala, El Salvador, Nikaragua, Kuba, Kolonia, Bolivia.

Noiz sortu zen: 1987.

Egoitzak:

Itziar Elkarte Etxea. Zalburu plaza z/g, 1 bulegoa. 01003 Gasteiz.

araba@mugarikgabe.org.

☎ 945 27 73 85 📠 945 27 73 85

Vicente Garamendi taldea, 5 • 48006 Bilbo
bilbao@mugarikgabe.org. Telefonoa 944 15 43 07.
Faxa: 944 16 67 96

Tejeria 5, 1 baxua. 20012 Donostia
gipuzkoa@mugarikgabe.org.

☎ 943 44 59 77 📠 943 44 59 77

Web orria:

www.mugarikgabe.org

Tokiko erakundeetatik egiten den garapenerako lankidetzak

Lankidetzak deszentralizatuak da autonomi erkidegoetako, foru aldundietako eta udaletako gobernuetatik herrialde pobretuetara bideratzen den Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO). Lankidetzak modalitate hau 90eko hamarkadan sortu zen Espainian, gizarte zibilak jokatuak paper garrantzitsuari esker, zeinak gobernuari eskatu baitziren bere Barne Produktu Gordinareneko %0,7 bidera zezala nazioarteko elkartasunera. Une horretatik aurrera hasi ziren hiritarrek tokiko gobernuari eta gobernu autonomikoari elkartasun eta erantzukizun maila handiagoa eskatzen.

Tokiko elkartasun politikek abantaila ugari dituzte: hiritarrengandik hurbil daude, beren interesak kontuan hartzen dituzte, politika publikoen sorkuntzan parte hartzen laguntzen dute, gobernu zentralak egiten dituen garapenerako lankidetzak baino autonomoagoak dira, tokiko beste eragile batzuekin edo sareekin koordinatzeko espazioak sortzen dituzte eta, gainera, elkartasuna erantzukizun partekatu bezala ikusten duten hiritar aktiboak, kontzientziatuak eta mobilizatuak sortzen dituzte. Baina, gure ikuspuntutik, beren balio erantsia beste bat da, alegia, gizarte zibilak funtsezko papera jokatuak duela lankidetzaren aldarrikapenean, definizioan eta kudeaketan. Hausnarketa hori inoiz baino beharrezkoagoa da orain, krisi ekonomikoan murgilduta gauden honetan. Autonomi erkidegoetako GLO aurrekontuek jasan duten beherakada kezagarria izan da, bi kasu hauetan izan ezik: Euskadik aurrekontuari eutsi dio eta Gaztela-Mantxak handitu egin du. Autonomi mailako guztizko GLO %12 jaitsi da, nahiz eta aurrekontu autonomikoen beherakada %4koa izan den. Tokiko erakundeek diru-laguntzetako deialdien bidez aurrekontuetan sartzen duten laguntza nagusiki Garapenerako GKEek (GGKEek) bideratzen dute, zeintzuek Hegoaldeko herrialdeetako tokiko erakundeekin lan egiten baitute pobrezia desagerarazteko. Hala, laguntza toki askotara eta gobernu ekintzen bidez soilik iritsiko ez litzatekeen herrietara iristen da.

Administrazio publikoek beste modalitate bat ere garatu dute, zuzeneko lankidetzak deitzen dena. Lankidetzak horren bidez erakundeek zuzenean bideratzen dute laguntza Hegoaldeko erakunde edo udalerrietara, nagusiki transferentzia ekonomikoaren edo zuzeneko tekniken bidez. Era honetan, tokiko erakundeek beren esperientzia transmititzen diete garatze bidean diren herrialdeei berebiziko garrantzia duten zenbait alderditan, hala nola deszentralizazio prozesuetan, tokiko agintean, hirigintzan edo ingurumenean. Modalitate hori gero eta gehiago bultzatzen ari da eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak uste du joera baikorra dela, baldin eta ongi aprobeztatzen badira kudeaketa eremu espezifikoetan metatutako ezagutza eta sortutako gaitasunak. Hala eta guztiz ere, zuzeneko lankidetzak arrisku handi batzuk dauzka, hala

nola Estatuko lankidetzak eredu eskala txikian errepikatzeak tentazioa, independenteki jokatzeko arriskua, hau da, Iparraldeko politiken lehentasunetara orientatuta egotea GGKEek kudeatzen duten gainerako lankidetzarekin loturarik izan gabe edota gardentasun eta kontrol falta. Hori gutxi balitz, asko aztertua eta ikertua izan da GGKEek garatutako lankidetzak eta batzuetan kritikatuak ere bai, baina zuzeneko lankidetzak ibilbide laburra du oraindik tokiko erakundeetan eta ez dago kontuak emateko kulturarik; ez da argi esaten zer, nola, zenbat eta non lan egiten den. Horregatik, gure ustez garrantzitsua da garapenerako lankidetzak modu horretarako kopuru txikiak bideratzea, eta kudeaketa ahalik eta gardenena izatea, nahierara esleitu ez dadin. Horren harira, 2007ko Lankidetzarako Euskal Legeak berak 9.3. artikuluan dioenez, lankidetzarako aurrekontuaren %10 bakarrik kudea dezake Eusko Jaurlaritzak zuzenean.

Gainera, krisi testuinguru honetan, baliteke zuzeneko lankidetzak gehiago sustatzea eta GGKEek koordinatzen dutena baztertea. Horren aurrean, ez dugu ahaztu behar lankidetzak deszentralizatuak hainbat eragile biltzen dituen garapen kontzeptu bati jarraitzen diola eta garrantzi berezia dutela Hegoaldeko tokiko gobernuari eta Iparraldeko homologoekiko elkarrizketak. Bestalde, aukera ematen du laguntza emaileen eta hartzaileen arteko elkarrizketa horizontalerako prozedurak ezartzeko, betiere Hegoaldeko GGKEak errespetatuz, hau da, herrialde hartzaileak izan daitezela garapen prozesuaren jabeak.

Gure ustez, oraindik asko dago egiteko aurrera egin nahi bada esparru deszentralizatutik kalitatezko lankidetzak politiketarantzko bidean. Esaterako, laguntza ez da geografikoki edo sektoreka barreiatu behar, erakunde deszentralizatuak eta gobernu zentralak garatutako lankidetzak politikek elkarrekiko osagarriak eta koherenteak izan behar dute eta gizarte zibilak eraginkortasunez parte hartu behar du politika horiek eraikitzeak prozesuan, edozein dela ere laguntza kudeatzen duen erakundea: GGKEak edo instituzio publikoak.



Euskadiko GGKEen Koordinakundeak

Lucha contra la riqueza, ¡es urgente!



Cada año el 17 de octubre se conmemora el Día Internacional contra la Pobreza. Con el propósito de promover una mayor conciencia sobre la urgencia de tomar medidas efectivas para la erradicación de la pobreza se vienen llevando a cabo acciones a nivel internacional, desde 2005 también en Euskadi. Este año, ONG, diversos colectivos, sindicatos y movimientos sociales, entre ellos la Coordinadora de ONG de Desarrollo de Euskadi, hemos organizado nuevamente diversas actividades durante la Semana contra la Pobreza del 13 al 21 de octubre con el fin de proponer alternativas y nuevos hábitos de consumo para lograr una sociedad más justa y solidaria.

No podemos pasar por alto el contexto que acompaña a la conmemoración de este día. Hoy sufrimos una crisis global que demuestra que el sistema capitalista y patriarcal no hace más que generar nuevas expresiones de pobreza y exclusión en sectores cada vez más amplios de nuestra sociedad y del mundo, especialmente en la juventud, en las mujeres y en las personas migrantes. La actual crisis está generada por un sistema que antepone el enriquecimiento de una pequeña parte de la población a costa del empobrecimiento de la mayoría de las personas, así como de la destrucción del planeta. Sin embargo, paradójicamente los gobiernos antepone políticas de ajuste y recorte social que suponen un aumento del desempleo, la precariedad y la exclusión, entre otras.

Como solución a esta crisis la clase política propone el crecimiento económico ilimitado. Es decir, da lo mismo cómo y para qué crecer. Sin embargo, olvidamos que alcanzar ese crecimiento económico infinito requiere que las personas produzcamos y consumamos a un ritmo desenfrenado, sin cuestionar nuestras necesidades, además de sobreexplotar los recursos naturales y fósiles. En definitiva, lejos de poner solución a la situación actual, perpetuará este sistema generador de pobreza y desigualdad.

Si todo el planeta viviera como lo hacemos aquí en Euskadi necesitaríamos 3 planetas para abastecer a la población mundial.

Como vía para paliar las desigualdades entre las distintas personas que vivimos en un mismo planeta, reivindicamos nuevos hábitos de vida y consumo basados en lo local, lo justo y en cubrir nuestras necesidades reales. Si todo el planeta viviera como lo hacemos aquí en Euskadi necesitaríamos 3 planetas para abastecer a la población mundial. Por tanto, debido a que vivimos en un planeta con recursos limitados, mantener un crecimiento económico infinito basado en la explotación de esos recursos limitados es un despropósito. Por si fuera poco, este sistema tampoco aporta felicidad en los países del Norte,



todo lo contrario, hace que nos metamos en el interminable ciclo de trabajar más para poder gastar más, y así poder lograr ser más felices. La infelicidad, depresión, soledad, violencia... están a la orden del día en nuestras sociedades supuestamente desarrolladas. Por tanto, este sistema tampoco es garante ni de bienestar ni de una vida digna y sostenible para todas las personas.

¿Y qué puedo hacer yo?

No obstante, ante esta situación, no hay peor crisis que la desesperanza, la desmovilización y la insolidaridad. Está en nuestras manos participar en la construcción de un futuro y un mundo más justo y solidario. Escapar de los mitos del crecimiento, del consumo, de la productividad o la competitividad es un primer paso. Sumarnos a modelos de vida que buscan el reparto equitativo de la riqueza, el respeto al medioambiente y una vida digna de todas las personas es la verdadera salida a la actual situación.

Pero para ello también es necesario que la sociedad se movilice y denuncie para poder variar las políticas que hoy generan injusticia. La ciudadanía puede participar y organizarse a través de los movimientos sociales que trabajan

para cambiar el rumbo de nuestras sociedades y de nuestro mundo. En el día a día está la verdadera fuerza del cambio, ya que la ciudadanía puede decidir qué hacer con su dinero, si quiere que no sirva para la especulación, para la inversión en armamento o para endeudar aún más a los países empobrecidos. En nuestro entorno existen diversas propuestas de transformación como la banca ética, el consumo consciente y responsable o el decrecimiento.

Este año los colectivos organizadores de la Semana contra la Pobreza hemos salido a la calle con el lema *Lucha contra la riqueza, ¡es urgente!*, ya que consideramos que no es posible el control de la pobreza sin abordar el control de la riqueza, especialmente si hablamos de recursos finitos. La lucha contra la riqueza, la acumulación y el despilfarro es urgente. Por todo ello, consideramos que la erradicación de la pobreza es posible siempre y cuando haya una verdadera voluntad política. •

¿Sabías que...

- En lugar de comprar ropa nueva existe la posibilidad de acudir a tiendas de segunda mano, o incluso a locales de ropa gratis, donde la gente deposita aquellos enseres que ya no utiliza pero que aún tienen vida útil?
- Comprando productos de comercio justo garantizas unos derechos laborales dignos y equitativos para las personas productoras locales, se rechaza la explotación infantil y se respeta el medio ambiente en sus procesos de producción?
- Existen iniciativas locales para poner en contacto directo, sin intermediaciones, a personas que producen productos agrícolas y ganaderos con las consumidoras?
- Existe la banca ética, que pretender ser una alternativa a los bancos tradicionales que sólo buscan el beneficio económico?



Campaña Pobreza Cero

Esta iniciativa, que se desarrolla en todo el Estado, trata de movilizar y sensibilizar a la ciudadanía sobre los Objetivos de Desarrollo del Milenio y en torno a la lucha contra la pobreza. Presiona además a la clase política para el cumplimiento de estos objetivos que suponen, entre otros, el punto de partida para erradicar el hambre y la pobreza en el mundo.

www.pobrezacero.org

En Euskadi, desde 2005 diversos colectivos, sindicatos, ONG, redes y movimientos sociales impulsan esta campaña y se suman a las movilizaciones internacionales que se iniciaron hace más de 18 años.



Los datos y los rostros de la pobreza

- 1.300 millones de personas subsisten con menos de un dólar por día.
- En 1960 había una persona rica por cada 30 pobres; en 1997 una por cada 70; hoy la proporción es de 1 a 80.
- El 10% de la población más rica posee el 85% de la riqueza del mundo.
- El 20% de la población del planeta tiene a su disposición el 86% de los recursos naturales.
- El 70% de las personas pobres del planeta son mujeres.
- En Euskadi el riesgo de pobreza o exclusión afecta al 19,3% de la población.

Zer dago medikamenduen atzean? Medikamenduei eta interes komertzialei buruzko ikerketa

Iragan maiatzean Europako Legebiltzarrak erabaki zuen ez onartzea Medikamenduen Europako Agentziaren (EMA) kontuak eta ikerketa bat irekiaraztea erakunde horren barenen dauden interes gatazkak argitzeko. Zer gertatzen ari da?

EMA da Europar Batasuneko herrialdeentzako medikamendu berrien merkaturatzea baimentzen duen organismo ofiziala. Erakunde horrek baditu aditu zenbait erabakitzeko medikamendu baten irabazi-arrisku balantzea behar bezain ona ote den merkaturatua izateko. Interes publiko eta pribatuak elkarri kontrajartzen zaizkion eta maiz talka ere egiten duten prozesu luze bateko azken urratsa izan da hori.

Jende askok pentsatzen du medikamenduen munduak aurrera egiten duela konpainia farmazeutiko handiek dirutza handiak inbertitzen dituztelako ikerketan eta garapenean. Harrigarria izanik ere, errealitatea oso bestelakoa da ordea. Medikamendu baten garapen fasera iritsi aurretik, mailarik oinarritzekoan ikertu behar da tratatu nahi dugun gaixotasunaren ekintza mekanismoa eta deskubritu behar dira geneak, hartzaile zelularrak, prozesu patogenikoan inplikaturako proteinak, eta abar. Oinarritzeko ikerketa hori unibertsitateek finantzatu ohi dute, neurri handi batean funts publikoak erabiliz.

80.eko hamarkadan medikamenduen munduko ikerketa errotik aldatu zuen gauza bat gertatu zen. Ronald Reaganen gobernuak *Bayh-Dole* legea onartu zuen, zeinaren arabera AEBetako sistema publikoko ikerlariak aukera zuten beren izenean konpainia pribatuei saltzeko egiten zituzten deskubrimenduen patenteak. Geroztik konpainia farmazeutiko gehienak arakatzen ari dira AEBetako unibertsitateetan eta ikerketa zentro publiko-



Ekuatore Gineako laborategi batean analisia egiten. Interred Euskal Herria.

tan egiten den lana eta hutsaren truke erosten dituzte ikaragarrizko irabaziak emango dizkieten botiken patenteak.

Kalkulu batzuen arabera, gaur egun merkatura ateratzen diren medikamendu berrien %85ek ez dakarte inolako berritasunik. Normalean, merkaturatutako beste medikamendu batzuei aldaketa kimiko txiki batzuk eginez lortutako substantziak dira, haiek bezalako eragina dutenak. Lehen zeuden produktu berberak dira, baina askoz garestiagoak, hain zuzen ere normalean medikamendu berriek merkaturatuta zeudenenak baino askoz prezio altuagoak adosten dituztelako administrazio publikoekin. Aurrerapen terapeutikoa dakarten medikamenduen %15 horretatik bi heren AEBetako sistema publikoak garatzen ditu eta doi-doi heren bat dira konpainia farmazeutikoek egindako ikerketaren ondorio. Bestela esanda, gauza bera birritan ordaintzen da eta justifikatu ezinako prezioetan gainera. Batetik, sistema publikoak

finantzatu egiten ditu benetan berriak diren medikamenduak ateratzen dituzten funtzionarioak eta proiektuak. Bestetik, ikerlariak medikamendu hori konpainia farmazeutiko bati saltzen dionean ikaragarrizko prezioa ordaintzen da, enpresak alde aurretik administrazioarekin adostu duena.



Ruandan dagoen sendagaien kontsultategi bat. Medicusmundi Gipuzkoa.

Prozesu honetan bada beste alderdi aipagarri bat, hots, medikamendua baimentzeko egiten diren azterlanak gehienbat konpainia farmazeutikoek diseinatu eta egiten dituztela. Interes-gatazka argia dago hor, zeren sarritan taxu jakin bat ematen zaio diseinuari, errealizazioari edo datuen analisiari, emaitzak onuragarriak izan daitezzen azterlana finantzatzen duen konpainiarentzat. Horrelako entseguak gero eta gehiagotan egiten dira Latinoamerikan, Asian edo Afrikan, non zorrotasun zientifikoari eta etikoari dagozkien eskakizunak askoz ere txikiagoak baitira eta errazagoa baita prozesua manipulatzeko.

Artikulu honen hasieran aipatu dugun EMAren eta Europako Legebiltzarraren arteko borrokaren aurretik oso gauza esanguratsu bat gertatu zen. Ikerlari independente batzuek pisua gutxitzeko medikamendu batzuekin (*rimonabant* eta *orlistat*) egindako entsegu kliniko batzuei buruzko datuak eskatu zizkioten EMAri. Ikerlariak susmatzen zuten datuak manipulatu zeudela, informazio guztia ez zettorrelako bat. Idatziz jaso zuten erantzun ofizialak zioen konpainia farmazeutikoen interes komertzialak osasun publikoa babesteko eskubidearen gainera zeudela. Eta hori bezalako beste kasu lazgarri asko gertatu dira. Adibidez, EMAko adituek erabaki zuten *erlotinib* izeneko produktua pankreaseko minbiziaren tratamendutik erretiratzea. Medikamenduaren jabe zen konpainiak presioa egin zuen EMAk talde ebaluatzaile berri bat eratu zezan, eta lortu zuen. Talde berri hau lau lagunek osatzen zuten eta horietatik hiruk lotura finantzarioak zituzten konpainiarekin. Azkenean onartu egin zen *erlotinib* erabiltzea pankreaseko minbiziaren aurkako tratamenduan, eta horrenbestez itxaropen faltsuak sortzen zaizkie pazienteei eta neurritz gainera kostuak inposatzen zaizkie sistema publikoari zein paziente partikularrei.

lazko abenduan, Thomas Lonngren, EMAko azken zuzendari exekutiboak iragarri zuen kargua utziko zuela eta handik urtebetera goi-mailako kargu bat zeukan industria farmazeutikoan. Ate birakarien zorioneko politika. Politikari askok irteera erraz eta aberasgarria ikusten dute industrian beren etapa politikoa amaitzen denean, eta

konpainietako goi-mailako kargu asko lanbide politikoetara iristen dira. Horrela, klase politikoaren interesak enpresenak dira, eta alderantziz. Eta hiritarrak? Badirudi onartu egin dugula merkatuek mundua gobernatzea eta klase politikoa hiritarrek aukeratzea, baina ez hiritarren interesak asetzeko baizik eta konpainienak.

Beharrezkoa da ikerketa independentea bultzatzea eta gardentasuna, profesionaltasuna eta interes gatazkarik eza bermatzea medikamenduen erregulazioak erabakitzen dituzten adituengan. Halaber, beharrezkoa da al bait arinen haustea ate birakarien sistema, ikaragarriko kaltea egiten baitio sistema publikoari eta demokraziari berari. Europako Legebiltzarrak EMAri espediente bat zabaltzeko hartu duen erabakia izango ahal da lehenbiziko urratsa aldaketarako bidean. Hori bai, gauzak aldatzeko hiritarren inplikazio aktiboa behar da. •

Juan Erviti López
Medicumundi Gipuzkoa
erakundeko boluntarioa



Juan Erviti López medikamenduei buruzko informazio eta aholkularitza saileko burua da Nafarroako osasun zerbitzuan. Apirillean Sendagaiak: osasuna ala negozio hutsa? izeneko hitzaldi bat eman zuen eta bertan argitzen saiatu zen sektore farmazeutikoak ba ote duen estrategia bat eritasunak asmatzeko eta medikamenduen premiagabeko erabilera sustatzeko. Hitzaldia Donostiako Zero Pobrezia Plataformak antolatu zuen.

Yayo Herrero

Co-coordinadora de Ecologistas en Acción

"Salir de esta crisis recortando el gasto público y el bienestar relega la responsabilidad al ámbito privado del hogar. Siendo esta una sociedad patriarcal, eso significa endosársela en exclusiva a las mujeres."



El crecimiento se ha convertido en el objetivo último de la economía. Da lo mismo cómo y para qué crecer. La economía es el objetivo central de la política general y todos los asuntos, incluso los sociales y los ecológicos, son tratados a la luz de las reglas de la economía. Sin embargo, hay colectivos y personas que consideran que es imprescindible analizar la realidad desde otra perspectiva para valorar también aquellas actividades necesarias para el funcionamiento de nuestra sociedad, pero que al no traducirse en términos económicos, no se reflejan en datos como el Producto Interior Bruto. Nos referimos a tareas imprescindibles asociadas a la reproducción humana, a la crianza, a la atención de la vejez, a la promoción de la salud..., conocidas también como trabajos de cuidados ya que buscan la resolución de las necesidades humanas y el bienestar de la gente. Entre estas personas se encuentra Yayo Herrero, Co-coordinadora de Ecologistas en Acción, quien en la Semana contra la Pobreza, dio sendas charlas en Bilbao y Donostia bajo el título *Recuperando los espacios de vida:*

Ecofeminismo y decrecimiento en el día a día.

Nuestra vida social y política la marca la economía, todo se organiza en torno a ella. ¿Qué podemos hacer para que verdaderamente la economía esté al servicio de las personas y no al revés? ¿A nivel individual y político qué se puede hacer?

Para que la economía esté al servicio de las personas es preciso que no esté al servicio de la obtención de beneficios. Es preciso que la satisfacción de las necesidades para todas las personas con criterios de sostenibilidad ecológica sea lo que organice qué se produce y cuáles son los trabajos necesarios para garantizar esa producción. A nivel individual podemos autorregular nuestros consumos, pero se trata, sobre todo, de una cuestión política. De sumar mayorías que confronten y propongan para realizar un cambio de sistema.

¿Cuáles son esos espacios de vida que cada uno/a de nosotros/as

tenemos que recuperar para que nuestra sociedad vaya por un mejor camino? ¿Qué impiden que sean el centro?

Tenemos que darle la vuelta al concepto de trabajo e incluir dentro de él todas aquellas tareas no remuneradas que consiguen mantener el bienestar cotidiano. Dar valor a los bienes de las relaciones y recuperar la percepción de ser seres ecodependientes, que forman parte de la naturaleza, y seres interdependientes, que no pueden sobrevivir si no es gracias al trabajo que otras personas nos dedican, sobre todo en diferentes momentos del ciclo vital.

Sin duda son las mujeres quienes en la mayor parte de los casos desempeñan las tareas de los cuidados. ¿Cómo se puede conseguir que los hombres tengan una mayor responsabilidad en los trabajos de cuidados y así las mujeres también puedan acceder en igualdad de condiciones al trabajo mercantil?

Es preciso confrontar también con la sociedad patriarcal. Algunos hombres van siendo conscientes de ello y van asumiendo tareas relacionadas con el trabajo de los cuidados. Sin embargo, la mayoría de ellos no lo hacen aún. Es mucho más cómodo no hacerlo y les ampara un ejercicio de poder que desde hace muchos siglos ejerce el patriarcado. Los hombres y la sociedad se tienen que responsabilizar de esta tarea, por ello, el papel de los servicios públicos y alguna legislación que vaya en esta línea puede ayudar mucho.

“Para poder construir una economía que ponga la vida en el centro es preciso desbancar a los mercados como prioridad”.

En ocasiones las soluciones que se plantean no son moralmente justas: abuelas que cuidan durante todo el día de sus nietos/as, personas inmigrantes contratadas de manera abusiva para atender a las personas mayores... ¿Se están planteando soluciones a corto plazo que no hacen más que evitar entrar en un verdadero y profundo debate que lleve al cambio?

Evidentemente. Sucede lo mismo con la idea del desarrollo sostenible cuando lo que se pretende es mantener el mismo modelo de crecimiento. Para poder construir una economía que ponga la vida en el centro es preciso desbancar a los mercados como prioridad. Si no es así, lo que se ponen son parches. El hecho de que se pretenda solventar esta crisis a base de recortar el gasto público y el bienestar lo que hace es relegar esa responsabilidad al ámbito privado del hogar y, siendo esta una sociedad patriarcal, eso significa endosársela en exclusiva a las mujeres.

Sin embargo, para las instituciones públicas la economía sigue siendo el eje central, ya que continuamente nos invitan a consumir más y más



De cerca:

Lugar de nacimiento: Madrid.

Movimientos sociales a los que perteneces: Ecologismo, 15-M y contrainformación.

Un libro o película imprescindible: *Gato negro, gato blanco*, de Emir Kusturica.

Una música del mundo: Música de los gitanos y gitanas del mundo.

Una web o blog que consultas a diario: www.rebellion.org.

como única salida a la crisis. ¿Es esa realmente una solución?

No. Nuestro sistema ha superado los límites del planeta. Más consumo sólo puede agravar el deterioro ambiental y profundizar las desigualdades sociales.

¿Cuáles son los aportes del ecofeminismo a la construcción de un modelo de sociedad más justo, solidario y sostenible para todas las personas?

Las propuestas que emanan de la economía feminista y ecológica proponen un modelo que sitúe el mantenimiento de la vida en el centro. Ambos movimientos realizan propuestas organizativas sobre la producción, la organización del espacio y el tiempo. Todas ellas son claras mejoras para la mayoría de la población. Sumadas estas aportaciones a las que

también realizan otros movimientos sociopolíticos en lo relativo al reparto de la riqueza, se podría planificar la política y la economía de una forma radicalmente diferente a la que se realiza desde el capitalismo neoliberal.

¿Cuáles son los grandes retos medioambientales (o ecológicos) a los que nos enfrentamos en la actualidad?

Sobre todo la crisis energética ante el declive del combustible fósil barato, la degradación de los mecanismos reguladores del clima que fuerzan el cambio en cadena de la organización de la biosfera a la cual está adaptada nuestra especie, la pérdida de biodiversidad (que es lo que permite que los ecosistemas se puedan mantener estables), la ducha química a la que sometemos los suelos, la atmósfera y las aguas... •



Algunas empresas transnacionales cuentan con ingresos superiores al Producto Interior Bruto de muchos países del Sur

El avance del capitalismo

global ha hecho que, en el último siglo, las empresas transnacionales hayan venido adquiriendo cada vez más capacidad de influencia y poder. Actualmente, las 500 mayores corporaciones controlan una cuarta parte de la producción y la mitad del comercio mundial, y su capacidad económica supera a la de muchos países: Wal-Mart, por ejemplo, maneja un volumen de ventas que supera el Producto Interior Bruto (PIB) de Noruega, mientras que los ingresos de ExxonMobil son mayores que la suma del PIB de Venezuela y Chile. Del mismo modo, si nos fijamos en las multinacionales que tienen su sede central en el Estado español, podemos comprobar que los ingresos anuales de Repsol y del BBVA son mayores que el PIB de Ecuador y de Guatemala, respectivamente.

Después de todo, las compañías multinacionales han resultado ser las principales beneficiarias del proceso de globalización neoliberal y, por ello, en el actual modelo socioeconómico, los derechos sociales de la mayoría de hombres y mujeres del planeta se encuentran sometidos a la lógica de un mercado dominado por las corporaciones transnacionales. Por eso, puede afirmarse que, como dijo Salvador Allende hace cuatro décadas en una reflexión que hoy tiene plena vigencia, "estamos ante un conflicto frontal entre las grandes corporaciones transnacionales y los Estados. Éstos aparecen interferidos en sus decisiones políticas, económicas y militares por organizaciones globales que no dependen de ningún Estado y que no están fiscalizadas por ningún parlamento".

En este contexto, resulta oportuno desvelar la existencia de los conflictos que están siendo causados por la expansión de las empresas multinacionales: daños medioambientales, desplazamientos de comunidades, alzas de tarifas y deficiencias de los servicios públicos privatizados, deterioro de los derechos laborales, expolio de los recursos naturales, persecuciones a las organizaciones sociales y sindicales y, en general, una sucesión de situaciones de abuso y de violación de los derechos humanos.

Y, junto a ello, se hace patente la profunda asimetría que existe entre los derechos de las corporaciones transnacionales, que se protegen mediante los múltiples acuerdos que forman la nueva *lex mercatoria* —ésta se concreta en toda una serie de normas y acuerdos bilaterales, multilaterales y regionales promovidos desde instancias como la Organización Mundial del Comercio, el Banco Mundial y el Fondo Monetario Internacional—, y sus obligaciones a nivel ambiental, laboral y social, que en buena medida se dejan en manos de los códigos de conducta voluntarios y la Responsabilidad Social Corporativa.

Observatorio de Multinacionales en América Latina (OMAL)
Asociación Paz con Dignidad

Boluntarioak eta erakundeak: garai berrietara egokitzen



XXI. mendearen lehen hamarkadan hazi egin da hiritarren parte-hartze soziala eta aldi berean aldatu egin dira parte hartzen duten pertsona zein kolektiboen adierazpenak, motibazioak eta eskaerak.

Alterglobalizazio mugimenduak edo 15-M bezalako fenomenoek islatzen dute gizarte zibilak protagonismoa hartu nahi duela, hiritarrek gehiago inplikatzeko premia aldarrikatzen dutela eta aurrera egin nahi dutela demokrazia oso baterantz.

Eszenatoki sozial, kultural eta ekonomiko nahasi horretan, oraindik ez dago oso argi zer den parte-hartze soziala eta zer boluntariotza. Tamalez, guk ere nahasmen hori elikatzen dugu gizarte zibilaz eta hirugarren sektoreaz hitz egiten dugunean, eta horrek ikaragarri zailtzen du parte-hartze sozial antolatatu bat garatzea. Gainera, gizartearen aldaketek (parte-hartzeaz eta konpromisoaz dugun pertzepzioetan islatzen direnek) erakundeek ekintzak berrorientatzen dituzte borondatezko lankidetzara handitzeko, eduki ideologikoa emanaz boluntariotzaren ekintza solidarioei.

Boluntarioak eta erakundeak

Definizio honetatik abiatuko gara: boluntarioa da bere ekimenez eta inolako interesik gabe komunitatearen zerbitzurako ekintza antolatuta batean parte hartzen duena.

Gaur egungo joerak erakusten du boluntarioek konpromiso ahula dutela, exijentzia maila txikiagoa dutela, dedikazio gutxiagoa dutela, gutxiago irauten duten apustuak egiten dituztela, gutxiago identifikatzen direla erakundeekin eta ardura gutxiago hartzen dituztela. Joera



horrek zenbait kasutan ito egiten ditu erakundeak: parte-hartze krisia sortzen da, bazkideen pasibotasuna nagusitzen da, liderrak erre egiten dira, zaila izaten da zuzendaritza batzordeetarako ordezkioak aurkitzea, ez dago konbikziorik erakundearen zentzuari dagokionez... Horri guztiari laguntza, baliabide eta errekonozimendu falta erantsiz gero, amildegiaren ertzean aurkitzen garela esan liteke.

Erakunde sozial indartsu, kohesioak behar dira, sinetsita daudenak beren ekarpena garrantzitsua dela eta gai direla garapena aldatu eta areagotzeko. Horretarako, lehenik eta behin, bazkideek eta boluntarioek sinetsi behar dute elkartearen jardura garrantzitsua dela eta ongi jakin behar dute zertan ari diren, nondik, norentzat eta zergatik.

Horren harira, inoiz baino beharrezkoagoa da elkarteetako proiektuak zaintzea eta hemen eta orain konprometituta dauden milaka pertsonen konpromisoa indartzea. Denbora eta baliabideak bideratu behar dira parte-hartzea kudeatzeko eta erantzukizun hori norbaitek hartu behar du. Era berean, funtsezkoa da erakundeetatik pasa diren pertsonen loturak finkatzea. Informazioa eman behar zaie, gogoetak eta jarrerak beraiekin partekatu

eta erakundeak antolatzen dituen jardueretan parte hartzera animatu. Eta, batez ere, erakunde irekiak izaten jarraitu behar dugu, gure proiektuetan parte hartzeko aukerak zabalduz eta gure harrera-gaitasuna sustatuz.

Horrek esan nahi du motibazioen, estiloen zein loturen aniztasuna onartu behar dugula, beraz, hobeto ezagutu behar ditugula eta gure erakundeak eskaintzen eta eskatzen diena definitu behar dugula. Erakundeek pertsonen egokitzeko ikasi behar dugu, baina egia da baita ere beren konpromiso kontzeptua egokitzen jakin behar dugula, erakundearen ematen duten denbora probetxuzkoa izan dadin gizartearentzat, erakundearentzat eta bereizentzat. Gure esku dago aukera horren barruan integratzea konpromisoaren, talde-lanaren, erantzukizunaren, doakotasunaren eta elkartasunaren baloreak. Boluntarioen erakundeek parte-hartze eskola izan behar dugu eta jardura publiko zein pribatuaren dimentsio solidarioa aldarrikatu behar dugu. •

Natxo Arnaiz
Bolunta, Bizkaiko boluntario
eta parte-hartze sozialerako
agentziako zuzendaria

Seguir, sin pausa

Cooperar significa "obrar juntamente con otro/a u otros/as para un mismo fin". Para mí, ese "cooperar", no comenzó yéndome lejos, sino mucho más cerquita, en mi ciudad, en mi barrio, con asociaciones locales que luchaban por intentar cambiar una realidad que no nos gusta.

Tras unos cuantos años

colaborando como voluntaria en diferentes organizaciones y ONG, decidí que quería conocer "el otro lado", la otra cara de la moneda, saber qué provocaba que tanta gente de lugares lejanísimos se jugasen el pellejo cada día para llegar a nuestro país, donde sus condiciones mejoraban, pero no tanto...

Así, puse rumbo al Sur, a Malawi, donde trabajé en un hospital y una escuela rurales durante 2 años. Tras esta experiencia maravillosa quise seguir conociendo África y seguir cooperando, "juntando manos" como dicen por aquí, en Guinea Bissau, país en el que trabajo con Medicusmundi Bizkaia desde hace año y medio.

Guinea Bissau es un país pequeño (apenas cuenta con 1.700.000 habitantes) por lo que, a primera vista, podría parecer fácil cambiar la situación tan desfavorable en la que se encuentra la mayor parte de la población; sin embargo, no es así.

A mediados de los noventa, Guinea Bissau era considerada como un modelo potencial para el desarrollo de África, pero varios acontecimientos la han llevado a ser hoy uno de los países más pobres del mundo (según el último Índice de Desarrollo Humano de 2011 del Programa de Naciones Unidas para



el Desarrollo, ocupa el puesto 176 de los 187 que hay). Uno de los eventos más destacables fue la guerra civil que tuvo lugar en 1.998 y que dejó al país sumido en la pobreza, con miles de personas muertas, heridas y desplazadas. Tras ella, se sucedieron diversos golpes de estado (el último tuvo lugar en 2009) que contribuyeron a la inestabilidad política de la que, actualmente, se intenta salir. A todo esto hay que añadir que Guinea Bissau es uno de los países más afectados por el tráfico internacional de drogas, armas y personas.

Sin embargo, Guinea Bissau cuenta con un potencial humano increíble, personas, que a pesar de las dificultades, están profundamente comprometidas y dispuestas a cooperar para cambiar la situación. En este país conviven más de 35 etnias diferentes, esto podría parecer un problema, (diferentes culturas, idiomas, costumbres...) y sin embargo, nada más lejos de la realidad. La diversidad del país no supone un lastre sino todo lo contrario.

Medicusmundi Bizkaia trabaja desde 2006 en el país, en la Región de Quinara, una de las zonas más desfavorecidas de Guinea Bissau y, desde este año, también en el Archipiélago de

las Bijagós, en la isla de Bolama. Los proyectos que llevamos a cabo se centran en dos áreas prioritarias: agua y saneamiento, y derecho a la salud sexual y reproductiva, en todos ellos, se transversalizan el enfoque de género y el de derechos humanos. Para lograr cambios, apenas perceptibles, pero no por ello menos importantes, hay que ir pasito a pasito.

Al mismo tiempo, y paralelamente a este proceso de desarrollo, gracias a las personas que forman parte de las organizaciones locales, aprendo cada día a *mirar*, a *observar*, y sobre todo, a *ver* con nuevos ojos todo lo que ocurre a mi alrededor, comprendo cosas que antes me eran ajenas, y aprendo a adaptarme a ritmos diferentes a los míos; en nuestros países las personas estamos acostumbradas a correr de un lado a otro, aquí, he aprendido a poner en práctica aquello de "*sin prisa, pero sin pausa*".

Aún nos quedan muchos retos y necesitamos abrir muchos ojos, muchas conciencias, aquí y allí. Por eso, no nos paramos y seguimos, sin pausa. •

Helea Saiz
Responsable proyectos de cooperación
en Guinea Bissau
Medicusmundi Bizkaia

